

Le 26 janvier 2021 -
2021eko urtarrilaren 26an,

Direction des finances - Finantzen zuzendaritza
Service comptabilité - Kontularitza zerbitzua

Référence - Erreferentzia: EAD/MD/CE – 001/2021

Objet - Gaia : Demande de subvention des associations -
Elkarteen dirulaguntza eskaera

Pièce(s) jointe(s) - Loturik: (fiche complémentaire de renseignements) -
(argibideen fitxa osagarria)

Vos réf. Zure erref.:

Madame, monsieur le président,

Andere lehendakaria, jaun lehendakaria,

Le soutien aux associations, axe important de l'action de la commune de Ciboure, prend plusieurs formes : subventions, mise à disposition de locaux, Maison des Associations, prêt de matériels, etc...

Chaque année, la ville de Ciboure accorde un soutien financier à certaines associations.

Afin d'apporter davantage de transparence et d'équité, la municipalité projette d'adopter une procédure d'attribution des subventions en faveur des associations qui mènent une action sur son territoire et dont l'objet social ou le projet présente un intérêt public local.

L'objectif est de délimiter le cadre général des interventions de la Ville de Ciboure vis-à-vis des porteurs de projets associatifs, contribuer à l'harmonisation des pratiques de gestion des subventions par les services dans le respect des obligations réglementaires, de préciser les modalités de gestion des subventions en rappelant les étapes incontournables d'un processus d'instruction et contrôler l'engagement du bénéficiaire en termes d'actions.

Pour l'exercice 2021, si votre association désire, pour financer son fonctionnement ou mener une action spécifique, solliciter une subvention de la commune de Ciboure, vous pouvez effectuer votre demande en complétant le dossier de demande de subvention au format papier que

Elkarteen laguntzea Ziburuko herriaren ekintzaren ardatz nagusietarik da, eta molde batean baino gehiagotan laguntzen dira elkarteak: dirulaguntzak emanez, gelak prestatuz, Elkarteen Etxearen bidez, materiala prestatuz, etab.

Urtero, Ziburuko herriak dirulaguntza eskaintzen du zenbait elkarteri.

Gardentasun eta zuzentasun gehiagoren ekartzeko, Herriko Etxeak dirulaguntzak esleitzeko prozedura plantan ezarri nahi du, lurraldean jarduten duten eta helburu soziala duten edo tokiko interes publikoa duten elkarten alde.

Helburua da Ziburuko Herriko Etxearen esku hartzearen oinarria finkatzea proiektuak dituzten elkartei buruz; zerbitzuek esleitzen dituzten dirulaguntzen kudeaketa harmonizatzen laguntzea arauen arabera; dirulaguntzen kudeaketa moldeak zehaztea dosierren ikerketa prozesuaren urrats bazterrezinak oroitaraziz, eta hartzailak hitzeman ekintzak zertan diren kontrolatzea.

2021eko kontu aldiari dagokionez, zure elkarteak Ziburuko Herriko Etxeari dirulaguntza bat galdegin nahi baldin badio bere funtzionamendurako edo ekintza berezi baten eramateko, dirulaguntza eskaera egin dezakezu

vous devrez remettre en mairie ou transmettre à l'adresse mairie@mairiedeciboure.com **avant le 15 mars 2021**.

Cette année, l'attribution d'une subvention à une association est conditionnée par le respect des dispositions définies dans le Cerfa n°1256*05 et la fiche complémentaire que vous trouverez en ligne sur le site internet de la Ville de Ciboure : <https://mairie-ciboure.fr/>

Vous souhaitant toute réussite dans les actions que vous engagez.

Je vous prie d'agréer, madame la présidente, monsieur le président, l'expression de ma considération distinguée.

Le maire,
Eneko ALDANA-DOUAT

dagokion dosierra betez paperean eta Herriko Etxean utziz edo mairie@mairiedeciboure.com helbidera igorritz **2021eko martxoaren 15a gabe**.

Aurten elkarteei dirulaguntza emanen zaie 1256*05. Cerfak finkatu neurrien arabera eta Ziburuko Herriko Etxearen webgunean atzemanen duzun fitxa osagarriaren arabera: <https://mairie-ciboure.fr/>

Zure elkarteak egiten dituen ekintzetan arrakasta izatea opa dizut.

Har ezazu, andere lehendakaria, jaun lehendakaria, ene agurrik beroena.

Auzapeza,
Eneko ALDANA-DOUAT